

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Lanpostuen zerrenda aldatzea

Lanpostuen zerrendaren bidez, administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta antolatzen dituzte, langile-beharrak zehazten dituzte, lanpostuetan jarduteko eskatzen diren baldintzak definitzen dituzte eta horietako bakoitza sailkatzen dute.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua adierazten duenez, administrazio publikoek lanpostu-zerrenden edo antzeko antolaketa-tresnen bidez egituratuko dute beren antolamendua.

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.6 artikulua adierazten du lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko direla lanpostuak.

Kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2025eko urtarileko nahitaezko txostenak.

Kontuan hartu dira Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i artikulua.

Arabako Mendialdeko Kuadrillak, 2025eko uztailaren 30ean egindako ezohiko Kuadrilla batzarraren, hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-data ezartzea erabaki zuen ondoren zerrendatzen diren lanpostuetarako, honako akordio honen arabera:

Lehenengoa. Lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek onartzea, gaur, 2025eko uztailaren 30ean, bilkura egingo den egunean, adierazten diren plazei derrigortasun-data esleitzeko. Aldaketa honela geratuko da:

LANPOSTUA	HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
Arquitektoa	3	2025/07/30
Arquitekto teknikoa	3	2025/07/30
Atxibozaina	2	2025/07/30
Administratia	2	2025/07/30
Administrari laguntzailea	2	2025/07/30
Sustapen ekonomiko teknikaria	3	2025/07/30
Animatzaile soziokulturala	3	2025/07/30

Bigarrena. Aldaketa honek onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-datari buruzko aldaketa ALHAOn argitaratzea, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrena. Erabaki honen berri ematea Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko abuztuaren 14a

Presidente

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ